

ITSASERTZA

GIPUZKOA G.1

Inurritza



Inurritzako ubidearen ibai-ahoa, Zarautzen, euskal itsasertzeko duna-eremu zabalena eta ondoen kontserbatu dena dago, beste eremu batzuetan hirigintzako eta turismoko okupazioak sarraskia egin baitute.

Paisaiaren aldetik oso ederra den itsasertzeko zerrenda txiki honek balio geologiko eta biologiko aipagarri batzuk

biltzen ditu: besteak beste, duna finkoen eremuak (gaur egun, golfean aritzeko soropilez estaliak), kosta gaineko itsaslabar malkartsuak eta padura eder bat izan zenaren hondarrak. Harrigarria bada ere, kontserbatu egin den hareatza honetan halako ingurune gazietan bakarrik bizi diren espezieak aurki ditzakegu, batzuk guztiz arraroak.



FIGURA ETA NEURRI BABESLEAK

• Biotopo Babestua (1997) // IKT (Interes Komunitarioko Tokiak).

LANERAKO GAIAK

- Paisaiaren interpretazioa: itsaslabarrak, hondartza, padura, hiri-ingurunea.
- Inurritzako ubidea: ekologia eta paduraren eraketa.
- Dunak (duna finkoak-duna mugikorak), hareatzaren birsorkuntza ekologikoa.
- Flora endemikoa: kontzeptua, espezieak, landaredi psamofloa.
- Gaur egun dagoen landaredia eta izan daitekeen landaredia: giza ekintzak landaredia aldatzea.
- Migrazio-hegaztiak: behaketa zuzena (morfologia, elikadura, azturak, etab.).
- Eremu honek jasandako gizakiaren presioa: azpiegiturak, turismo-jarduera, golf-zelaia.
- Ekosistemak dituen arriskuak: kutsadura, uren poluzioa, hondakinak.
- Erabilera tradizionalak: arrantza, ontziolak, minerala kargatzeko tokiak.
- Zarautz herria: alde zaharra, jauregiak eta basilizak.